



Gorde nazazu lurpean

nobela lantzeko proposamen didaktikoa

Liburuaren fitxa



Izenburua: Gorde nazazu lurpean

Idazlea: Ramon Saizarbitoria

Argitalpen data: 2000

Argialetxea: Erein

Orrialde kopurua: 468

Laburpena

Intxortako lubakietan girotutako 'Gudari zaharraren gerra galdua'k zabaltzen du liburua, eta Intxortako lerroen apurtzearekin gertatu zen nazionalen aurrerabidearen ondorioetako bat kontatzen zaigu 'Asaba zaharren baratza'n. Liburua ixten duen azken narrazio honek Sabino Aranaren hilobi aldaketak kontatzen ditu. Tartean gelditzen da 36ko gerraren oihartzun atergabea den 'Bi bihotz, hilobi bat' (Artaxonatik Artaxonara). 'Rossetti-ren obsesioa'k, berriz, Madrildik Londresera daramatza euskaldunoi buruzko galdera eta diagnostiko zuzen-zuzenak: '¿Qué os pasa a los vascos?' eta 'Sois unos melancólicos'. Galderaren eta baieztapenaren atzean bi emakume, Victoria eta Eugenia, guztiz desberdinak eta aldi berean antzekoak oso. Eta gizon bat, eta bi harremanen kasuan -arrakasta labur txinpartatsuren bat gorabehera-, bi maitasun ezinezko. Azken finean, ze zaila egiten zaion gizonezkoari gauzarik xumeena ere naturaltasunez aitortzea.

HABE Liburutegiko fitxa

Zergatik irakurri liburua

XX. mendeko tradizio kontinentalarekin irmoki lotutako nobelagintza da Saizarbitoriarena, baina kasu honetan era "eskuragarriago" batean eskainia, 'nouvelle' hauek, nobela izateari utzi gabe, laburragoak direlako bere ohiko produkzioa baino, maila literario ezin garaiagoari eutsiz. Bertsatildadea dauka liburuak, gainera, 'nouvelle' guztiak ez direlako zertan irakurri behar, baizik eta bat edo batzuk aukeratu. Ironiaren trama lantzeko eta xehetasunek narrazioan duten garrantzia azpimarratzeko erabil daitezke. Halaber, gerra zibilaren gaian sakontzeko eta eztabaidatzeko, lehenengo eta azkeneko nouvelleen bitartez batez ere.

Atalaren edukiak

Ramon Saizarbitoriaren *Gorde nazazu lurpean*-eko “**Rossettiren obsesioa**” ipuina izango dugu aztergai. Ipuinaren ezaugarri literarioak aztertzeaz gain, narrazio honek Artearekin, eta zehazki, Pre-Rafaeliten margogintzarekin dituen loturak aztertuko ditugu.

Helburuak:

Edukizkoak:

- *Rossettiren obsesioa* irakurri, ulertu eta aztertzea.
- Lana Ramon Saizarbitoriaren ibilbidean kokatzea.
- Ipuinak artearekin eta psikoanaliarekin egiten dituen loturez jabetzea

Prozedurazkoak:

- Literatur lanak irakurri, gozatu, eta kritikoki baloratzen ikastea.
- Literatur lanak iruzkintzen eta euren baliabideak aztertzen ikastea.
- Bestelako kultura sorkuntzak, hala nola, pintura, argazki edo zernahi
- adierazpide artistikokoak irakurtzen ikastea.
- Taldekideekin lan egiten eta emaitzak taldearen aurrean eztabaidatu eta aurkezten.

Jarrerazkoak:

- Ikerlan eta talde lanak errespetuz eta lankidetzaz bilatuz burutzen ikastea.
- Literatur lan baten oinarrian dauden kultura erreferentziez ohartzeko ikastea.
- Literatur sorkuntzak oinarrian dituen obsesio eta hausnarketez jabetzea.
- Idazketaz hausnarketa egitea eta genero ikuspuntutik irakurketa egiten jakitea.

Materialak

- Liburuari buruzko ikerketa kritikoak (ikus bibliografian)
- Liburuaren analisirako baliatuko den power point-a
- Pre-rafaeliten margoak
- Londoneko mapa

Denboralizazioa

- Irakasleak erabakiko du, baina astebete gutxienez.

Metodologia proposamena

- Ikus, testu analisirako: “Literaturaren irakaskuntza bigarren hezkuntzan” (Olaziregi, 2000): <https://www.idazleak.eus/fitxategiak/dokumentuak/aldizkariak/hegats28.pdf> (39-72 or.)

Ebaluazioa

- Talde lana eta talde aurkezpenak lehenetsiko dira.
- Talde bakoitzak prestatuko duen dossierrarekin, ipuinaren analisia jasotzen duen azken txostena prestatuko dugu, eta sarean zintzilikatuko, ikasle guztiek eskura izan dezaten.

Testu hautapena

a. Atarikoak

- Zer dakizu ipuinaz?
- Zer iradokitzen dizu izenburuak?
- Nor izan zen Rossetti?

b. Irakurri beharreko testua (125-127 or.)

Sarrerako errotondan geunden, dendako atarian. Azkenean, irteerako bidean geundela uste izan nuen, baina "Tira, zatoz" esan zuen, eta ibilera arinez, barnerantz abiatu zen berriro ere. Solairu bat igo genuela esango nuke, zenbait sala gurutzatu, eta azkenean John Everett Millais-en Ophelia-ren aurrean gelditu zen. Neska gazte guztiz Eder hori,

urtegi batean hilik igeri datzana heliotropo lorez eginikoa diruen eta ur azala estaltzen duten landareekin bat egiten duen soinekoaz jantzia Gero jakin dut Elizabeth Siddal zela, Rossettiren emaztea, eta koadro horretan margotua izan zen garaian hogeita bi urte zituela.

Koadroa ederra da, Victoriak bestela esan badezake ere, eta be bistakoa Klimt-en inspirazio iturri izan zela. Gainera, haren aurrean, koia bidez oso ezagunak zaizkigun

obren originales eragiten duten zera hori sentitu nuen, zeluloidezko personaiak hezurmatiturik ikusteak eragiten duenaren parekoa.

-Itsusia ez da –esan nion.

-Douce est la mort qui bien en bien aimait. Kurtsi hutsak dira, morbosoak, makabroak. Des vrais salauds. Gajo hori astebete baino gehiago edukiko zuten errukirik gabe uretan beratzen, birikeria har zezakeelako kezkarik gabe.

Koadroko Elizabeth Siddal-ek, Rossettiren emazte eta prerrafaeliten modelorik eztienez, itxura osasuntsua du. Azala oso du zuria, gardena, tindu gorrixkaz ukitua, emakume britaniar askoren antzera. Ahoa zabalik ageri du, ebakortzak bistan, baina ezpainak ez ditu inolaz ere moreak, itotako bati legokiokeen bezala. Hori bai, begi argian begirada galdua heriotzaren adierazpen zehatza da, gehiegikeriarik gabea.

-Osasuntsuegi dakusat nik –erantzun nion gaizto- Beharbada, argizari ukitu bat behar zuen.

-Ez itxurarik egin. Ziur asko, morboso hutsa zara zeu ere; azken finean, gizon gehienak zarete morbosoak txantxetan ari zela erakusten ahalegindu arren, ezina zitzaien esaten zuena hein handi batean pentsatzen zuenarekin bat zetorrela ezkutatzea -, eta zer esanik ez zuek, psikoanalistok: aitorlekuetako apaizak bezala, morboso hutsak.

(...)

-Zer du txarrik? –galdetu nion.

-Deus ez. Sleeping beauty-ak gustatzen zaizkzuela; lokarturik edo hilik, berdin dio, lore artean etzanak, noiz bortsatuko dituzuen zain.

-Pasatu egin zara.

-Apurtxo bat besterik ez –esan zuen barrez.

Gero, liburuen poltsa nire begien aurrean altxatu, eta:

-Beharbaa, gehiegi baldintzatzen du nire iritzia hauek eskatu dizkidan agure lizun horrek prerrafaelitak gustuko izateak.

(...)

-Sedanok maitasuna eta desira bereizi beharra neurotiko obsesiboen joera dela esaten zidan, eta nobelagile suediar horrek emango ziola beharbada Freud-i Bizitza erotikoarean doilortze orokorra idazteko bidea. Ez nuen ulertzen zer esan nahi zuen zehazki, baina ziur nengoen sexualitateaz jabetzearen nahigabeak ematen diola amaiera haurtzaroari, eta Victoriak ere berean egingo zukeela Doktor Glass-ek gai honi buruz egiten duen aitorpena: "Jaungoikoak udaberriko zeru urdinean gauza itsurisren bat idatzi zuela iruditu zitzaidan".

Ramon Saizarbitoria, *Gorde nazazu lurpean*, Erein. 125-127. orr

Ikerketa

Testua ongi ulertuko dugu lehenengo, eta bere ezaugarriak (narratzailea, pertsonaia, lekua, denbora) deskribatuko laburki. Testuan hainbat erreferentzia kultural kausi ditzakezu.

Jarduerak

Testuan hainbat erreferentzia kultural kausi ditzakezu:

- Prerrafaelita margolariak. Ikertu ezazu nortzuk izan ziren, zer margotu zuten eta batez ere, testuan aipatzen den margolaria, Dante Gabriel Rossetti nor izan zen.
- Ophelia koadroa aipatzen da. Begiratu ezazu interneten, eta bere ezaugarriak deskribatu. Zein lan literariori egiten dio erreferentzia?
- Zergatik egiten du bere buruaz beste Opheliak?
- Sleepyng Beautya-k: zer dira? Konpara itzazu Loti Ederra ipuin tradizionalaren bertsio desberdinak, dela Perraultena, dela Basileren *Pentamerone* liburuan datorrena. Aipatu diferentziak, eta Disneyren bertsio bat erabili, esaterako, horiek zehazteko.
- Ikertu *Doktor Glass* nobela nork idatzi zuen eta zertaz hitz egiten duen. Zer lotura du testuan esandakoarekin?

Dossiera

Jarduerak

- Saizarbitoriaren ipuin honek gai oso garrantzitsu bat jartzen du gure begien bistan: emakumezkoaren irudiena XIX mendeko Artean. Ikertu ezazu, esaterako, irudi horiek nolako emakumeak, zein rolekin, azaleratzen dituzten.
- Kontestualizatu irudi horiek emakumezkoak gizarte victoriarrean zuen lekuarekin. Komentatu, esaterako, emakumezkoek eskubiderik bazuten lan egiteko, ikasteko, botua emateko...eta zergatik irudikatzen diren etengabe emakume suizidioak. Olaziregi-ren 2000ko artikuluan aipatzen diren erreferentziak balia ditzakezu ikerketa hasteko.
- Emakumezkoaren suizidioa gai komuna da XIX mendeko eleberrigintzan. (ik. Literatura Unibertsala, Batxilergoa 2, testuliburuko 10. Gaia).

Ondorioak

Jarduerak

- Zer ikasi dugu taldean?
- Komentatu zerk harritu zaituen eta irakurritako testuak zer iradoki dizun, interesgarria izan den, zein zalantza izan dituzun.

Bibliografia

- Aldekoa, Iñaki & Olaziregi, Mari Jose, 2012, *Literatura Unibertsala*. Batxilergoa 2, Donostia: Erein.
- Benet, Joan, 1989, *Londres victoriano*, Bartzelona: Planeta.
- Hilton, T., 1988, *Los prerrafaelitas*, Bartzelona: Destino.
- Olaziregi, Mari Jose, 2002, *Euskal eleberraren historia*, Bilbo: Labayru.
- Olaziregi, Mari Jose, 2004, "Ramon Saizarbitoria: obsesioez haratago literatura", RIEV 49.2, 521-549. (online)
- Saizarbitoria, Ramon, 2000, *Gorde nazazu lurpean*, Donostia: Erein.



Lan hau [Creative Commons Aitortu-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa lizentzia](#) baten mende dago.

Honakoak egin ditzakezu:

- Partekatu — partekatu, kopia eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan.
- Moldatu — nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu edozein xedetarako, baita merkataritza-xedetarako ere.

Honako baldintzen arabera:

- Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.
- PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.